



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek, Bizkaibuseko unidateen aurrekaldean "bizikletak eroateko sistemak" instalaletako azterlana egiteko eskaria egin deutesie Aldundiari

Bilbon, 2014ko apirilaren 15ean

Bizkaiko Batzar Nagusiek, gaur goizean Herri Lan eta Garraioetako Batzordean hartutako erabagian, eskaerea egin deutesie Foru Aldundiari, Bizkaibuseko unidateen aurrekaldean bizikletak eroateko sistema ezarteko aukera "aztertu" daian. Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldeak adierazo dauenez, une honetan hori Zirkulazinoko Araubide Orokorren kontrakoa da. Talde horrek ez dau Socialistas Vascos (PSE-EE) taldeak aurkeztutako Arauz Besteko Proposamena bultzatu gura izan. Dana dala, azkenean onartu egin da, Batzarretako beste talde bien laguntzari esker (EH Bildu eta PP).

Joaquín Colmenero batzordekide sozialistak esan dauenez, proposamenaren helburua "herritarren mobikortasuna erraztea eta Lurraldean bizikleten erabilera bultzatzea" da. Sistema "erraza" da, eta Europako eta Ipar Ameriketako hainbat uritan "urte asko" daroaz martxan, eta oso erabilgarria izan daiteke garraio bide biak behar dituen herritar askorentzat. Aurrekaldean bizikletak eroateko sistemak instalaletako ekimena, Bilboko Udalak joan dan azaroan onartu eban mozino baten hariari jarraitzen deuto. Mozino haretan, osoko bilkurak eskaerea egin eutsan Udal Gobernuari, sistema hori instalau eiten Bilbobuseko material mobikor barrietan.

Ildo berari jarraituz, PP eta EH Bildu taldeak neurria aztertzearen alde agertu dira, sistema homologauta badago. Puntu horri jagokonez, proposamena aurkeztu dauen taldeak popularren zuzenketa eske bat onartu dau, euskarriak, Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailaren on eretxia euki ezker instalau daitezkan, Sail hori dalako holango mekanismoak "baimentzeko eta homologetako" eskuduna.

EAJ-PNV taldearentzat, ezin da alderatu Bilbobuseko eta Bizkaibuseko zerbitzuen egoera. Aldundiaren esku dagoan zerbitzuan, lineetako abiadura handiagoa da eta unidateak "oso mota desbardinekoak" dira. Jon Larrea jeltzaleak ezeztu egin dau Bilboko Udalak autobusen aurrekaldean "parrillak" jarri behar dituanik, material mobikor barria erosteko baldintzen pleguetan hori atzekalderako baino ez dabelako aurreikusten, aurrekaldean jarrea debeketan dauen Zirkulazinoko Araubide Orokorra baimentzen dauen moduan. Colmeneroren berbetan, hori "oso gertu dagoan etorkizunean" aldatu daiteke, Estatu mailan gai hori aldatzeko bultzatzen ari dan gazte ekimen bat dala eta. Aitor Torrek (EH Bildu) adierazo dauenez, Madrilgo linearen bat aurrekaldeko euskarria erabilten ari da une honetan.

Jeltzaleek barriro esan dabe estatu mailako araubidea dala aurrekaldean euskarriak jarrea debeketan dauena. Jon Larreak (EAJ-PNV) uste dau bizikletak eroateko sistemak "kalteak eragin daikiezala oinezkoen artean". Ganera, "ibilgailuaren argiak eta seinaleak behar dan moduan ikustea ezinezko egin", eta autobusen "bira zaildu egiten dabe". Hori dala eta, euren ustez, ezer egin aurretik, Bizkaian "holango ekimenak planteau orduko" legedia aldatu beharko litzateke Madrilan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

EAJ-PNV-ko batzordekidearen eretxiz, kontuan izan beharreko beste gai batzuk dagoz, bizikleta jausten bada norena dan “ardurea”, kaltetuek, zer edo zer geratu ezker, Foru Administrazioari erantzukizunak eskatuko deusiezalako. “Zein izango litzateke arduraduna”, Bizikletak gidariak jarri beharko ditu”, galdetu dau Larreak. Bere ustez, bizikletak jarteak denporea eskatuko leuke, eta horrek “kalteak eragingo leukez generako erabiltzaileen artean, zerbitzuak atzeratu egingo litzatekezalako”.

Jeltzaleek eta EH Bilduk gogoratu dabe une honetan Bizkaibusen bizikletagaz bidaiatu daitekeala, aireportukoa moduko zerbitzu batzuetan, maletak erroteko lekua daukien autobusetan, eta artikulauetan “bidaiari gehieneko orduak ez diranetan”, erdiko plataforman bidaiaririk ez dagoanean.

**BIZKAIBUSEN A-3141 LINEAREN (BARAKALDO-LARRAÑETAKO FUNIKULARRA)
GERALEKUA MAX CENTERREN**

Socialistas Vascos (PSE-EE) eta Bizkaiko Popularrak (PP) taldeek, bakoak bere aldetik, arauz besteko proposamenak defendidu ditue batzordean, Aldundiko Herri Lan eta Garraioetako sailari eskaria egiteko, Barakaldo eta Larrañetako Funikularra lotzen dituan Bizkaibusen A-3141 linearen ibilpidea aldatu daian, autobusek Max Center inguruko bidaiariak hartu ahal izateko.

Talde biek aldaketea defendidu dabe trazauan, linea horretako autobusek desbideraketa “txikia” egin daien, 634 errepide nazionalean dagoan markesinan, merkataritza guneko oinezkoentzako urteera nagusiaren aurrean, bidaiariak hartu ahal izateko, horretara erabiltzaileek ez dabelako Max Center inguratzen dauen errepidea “leku ezegokiren batetik” kurutzatu beharrik izango Ugarte auzoan dagoan gaur eguneko geltokira heltzeko.

Aurkeztutako ekimen bien artean PP-rena izan da onartu dan bakarra, Batzarretako talde jeltzaleak ez dauelako eztabaidatu eta bozkatu gura izan, bere eretxiz batzordeko presidentek –Gonzalo Zorrilla-Lequerica popularrak–, batzordean lantzeko bete behar dan arauzko izapide guztia bukatu aurretik sartu dauelako eguneko gai zerrendan. PP-ko ordezkariak adierazo dauenez, “atzo” itxi zan zuzenketa-eskeak aurkezteko epea, eta batzordekide popularrak ulertu dau gai zerrendan sartu daitekeala, jatorrizko testuak ez dauelako zuzenketa-eskerik jaso. Eztabaida horren ostean, ekimen popularra onartu egin da, aldeko 4 botogaz (PP eta PSE-EE) eta 3 abstentzinogaz (EH Bildu), eta sozialistek aurkeztutakoa ez da onartu, EAJ-PNV-ko 6 ordezkariak kontrako botoa emon dabelako.

Eztabaidan, PP eta PSE-EE taldeek, linea hori Max Centerrean joateko erabilten daben Trapagako biztanle batzuen kexa azaldu gura izan dabe. Erabiltzaile horreek “modu ezegokian” kurutzatu behar ditue merkataritza zentroa eta Ugarte auzoa bereizten dituen errepideak, bertan dagoalako A-3141 lineako (Funikularra-Barakaldo) geralekua.

EH Bilduren eretxiz, konponbiderik onena oinezkoentzako igarobidea egitea izango litzateke, egungo trazaua aldatu beharrean, azken aukera horrek “ibilpidearen denporea luzatu egingo leukelako”, eta horrek kalteak eragingo leukezalako erabiltzaileen artean. Proposamena aurkeztu daben taldeen eretxiz, konponbide horrek “oso zirkulazino arazo larriak” eragin daikez, Ugarte auzoa eta merkataritza zentroa bereizten dituen errepideen artean dagoan trafikoko dentsidade handia dala eta.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Jeltzaleak be ibilpidea aldatzearen kontra agertu dira, zerbitzua bere “osotasunean” begiratu behar dalako. EAJ-PNV taldearen esanetan, badagoz Trapagako biztanleak Max Centerreko geraleku horretara hurbiltzen dituen beste linea batzuk, eta, hori dala eta, ez dabe beharrezko ikusten Larrañetako funikularra Ezkerraldeko herriagaz lotzen dauen linearen ibilpidea aldatzea. Esan behar da linea horrek, batez beste, puntu horretan “20 erabiltzaile” jasoten dituala egunean noranzko batean –Trapagatik Barakaldora– eta “erabiltzaile 1” beste noranzkoan. Nerea Ahedoren ustetan, “ganerako bidaiariak kaltetu egingo litzatekez, bidaia egiteko denporea 5 minutu luzatuko litzatekelako”. Bere datuak kontuan izanda, A-3141 linea “1.100 bidaiarik” erabilten dabe egunero.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales piden a la Diputación que realice un estudio para instalar "portabicicletas" en el frontal de las unidades de Bizkaibus

Bilbao, a 15 de abril de 2014

Las Juntas Generales de Bizkaia han acordado esta mañana, en la comisión de Obras Públicas y Transporte, instar a la Diputación foral a que “estudie” la posibilidad de implantar un sistema de portabicicletas delanteros en las unidades de Bizkaibus algo que, en estos momentos, choca con el Reglamento General de Circulación, según ha mantenido el grupo Nacionalistas Vascos (PNV). Esta formación se ha negado a respaldar la proposición no de norma presentada por los Socialistas Vascos (PSE-EE), aprobada finalmente gracias al apoyo de los otros dos grupos de la Cámara (EH Bildu y PP).

El juntero socialista Joaquín Colmenero ha dicho que su propuesta pretende “facilitar la movilidad de los ciudadanos y fomentar la utilización de las bicicletas” en el Territorio. Es un sistema “fácil” que lleva “muchos años” funcionando en ciudades europeas y norteamericanas y que puede ser útil para ciudadanos que necesiten combinar ambos modos de transporte. Su iniciativa para instalar portabicicletas frontales va en línea con una moción aprobada en el ayuntamiento de Bilbao en noviembre del año pasado por la que el pleno reclamó al Gobierno municipal instalar este sistema en las nuevas incorporaciones de material móvil de Bilbobus.

PP y EH Bildu se han mostrado partidarios de que la medida se estudie siempre que el sistema sea homologado. En este sentido, el grupo proponente ha aceptado una enmienda de los populares para que los soportes se instalen siempre y cuando tengan el beneplácito del Departamento de Industria del Gobierno Vasco que es el competente para “autorizar y homologar” este tipo de mecanismos.

Para el PNV, no es comparable la situación de los servicios de Bilbobus y Bizkaibus, puesto que, en el servicio foral, la velocidad de las líneas es superior y la tipología de las unidades es “muy diferente”. El jeltzale Jon Larrea ha negado que el ayuntamiento de Bilbao vaya a colocar “parrillas” en la parte delantera de los autobuses, puesto que los pliegos de condiciones para la adquisición de nuevo material móvil lo prevén sólo para la zona trasera, en línea a lo que permite la Normativa General de Circulación que impide su colocación en la parte frontal del bus. Según Colmenero, esto puede cambiar “en un futuro muy cercano” a la vista de una iniciativa juvenil que se está promoviendo a nivel estatal para eliminar esta prohibición. Según Aitor Torre (EH Bildu), alguna línea de autobús en Madrid estaría utilizando ya un soporte delantero.

Los jeltzales han insistido en que la normativa estatal es la que impide que se coloquen soportes frontales. Jon Larrea (PNV) cree que estos portabicicletas pueden “dañar a los viandantes”. Además, “impiden la correcta visión de las luces y la señalética del vehículo” y “dificultan el giro” de los autobuses. Por ello, considera que, como paso previo, habría que cambiar en Madrid la legislación “antes de plantear este tipo de iniciativas” en Bizkaia.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

El juntero del PNV cree que existen otras cuestiones a tener en cuenta como es la “responsabilidad” en caso de caída de la bicicleta, ya que los perjudicados van a exigir responsabilidades patrimoniales a la Administración foral si se producen daños. “¿Quién sería el responsable? ¿Debería colocar las bicicletas el conductor?”, ha preguntado Larrea que piensa que el manipulado de las bicis llevaría tiempo y esto “penalizaría al resto de usuarios en forma de demoras”.

Tanto los jeltzales como EH Bildu han recordado que, actualmente, se permite viajar en Bizkaibus con bicicleta en algunos servicios como el del aeropuerto, en autobuses con maletero, y en los articulados en horas “valle” siempre que la plataforma central no esté ocupada por viajeros.

PARADA EN MAX CENTER EN LA LINEA DE BIZKAIBUS A-3141 (BARAKALDO-FUNICULAR LARREINETA)

Los grupos junteros Socialistas Vascos (PSE-EE) y Popular Vizcaíno (PP) han defendido en la comisión diferentes proposiciones no de norma para instar al departamento de Obras Públicas y Transportes de la Diputación a que modifique el recorrido de la línea de Bizkaibus A-3141 que comunica Barakaldo con el Funicular de Larreineta, con el objeto de que los autobuses puedan recoger viajeros en la zona comercial de Max Center.

Ambos grupos han defendido un cambio en el trazado para que los autobuses de esta línea realicen un "pequeño" desvío para recoger viajeros en la marquesina situada en la Nacional 634, frente a la salida principal de peatones del centro comercial, evitando que los usuarios de este servicio tengan que cruzar “indebidamente” por los viales que bordean Max Center para llegar a la parada actual ubicada en el barrio de Ugarte.

De las dos iniciativas, sólo la del PP ha salido adelante debido a que el grupo juntero jeltzale se ha negado a debatirla y votarla por entender que el presidente de la comisión –el popular Gonzalo Zorrilla-Lequerica - la había incluido en el orden del día sin que la misma hubiera concluido todo su trámite reglamentario para tratarla en comisión. Según el representante del PP, "ayer" se cerró el plazo de enmiendas y el apoderado popular ha entendido que podía incluirla al no contar el texto original con enmiendas. Tras este rifirrafe, la iniciativa popular ha sido aprobada por 4 votos a favor (PP y PSE-EE) y 3 abstenciones (EH Bildu), y la socialista ha sido rechazada por la postura contraria de los 6 representantes del PNV.

En el debate, PP y PSE-EE han querido trasladar la queja de algunos vecinos de Trapagaran que utilizan esta línea para llegar a Max Center y que se ven obligados a cruzar "de forma indebida" los viales que separan el centro comercial y el barrio de Ugarte donde se localiza la parada de la línea A-3141 (Funicular-Barakaldo).

Para EH Bildu, la mejor solución sería instalar un paso para los viandantes y no modificar el trazado actual, ya que esta última opción “aumentaría el tiempo de recorrido” con el consiguiente perjuicio para los usuarios. Para los grupos proponentes, en cambio, esta solución podría acarrear problemas de circulación “muy grandes” debido a la gran densidad de tráfico que soportan los viales que separan el barrio de Ugarte del centro comercial.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

Los jeltzales se han negado también a modificar el recorrido ya que hay que mirar el servicio en su “globalidad”. Según el PNV, existen ya otras líneas que acercan a los vecinos de Trapagaran a esta parada de Max Center, por lo que no ven necesario la modificación del recorrido de la línea que comunica el funicular de Larreineta con la localidad de la Margen Izquierda, la cual recoge en la zona del centro comercial a “20 usuarios” de media al día en un sentido - de Trapagaran a Barakaldo - y a “1 usuario” en el otro. Para Nerea Ahedo supondría “penalizar al resto de viajeros porque el tiempo de viaje aumentaría en 5 minutos”. Según sus datos, la línea A-3141 es utilizada diariamente por "1.100 viajeros".